

AGERRALDIA (2026-6-9)

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HEZKUNTZAREN LEGE-AURREPROIEKTUA**

Egun on eta eskerrik asko EHIGE konfederazioa Eusko Legebiltzar honetara gonbidatzeagatik EAEko Hezkuntzaren Lege-Aurreproiektuari buruzko iritzia ematera. Eskaera horri erantzuteko asmoz hemen gaituzue Susana Aribayos, EHIGeko zuzendaritza-batzordeko kidea eta Lurdes Imaz, koordinatzailea.

EHIGERen iritziz, hezkuntza-araudi berri orok egungo arazoei erantzun eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko mekanismo zehatzak artikulatu behar ditu.

Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zenetik 30 urte pasatu ondoren, hauek dira EAEko hezkuntza-ereduaren ezaugarri nagusienetako batzuk: eskola publikoaren ezarpen mugatua, eskola-segregazioaren indize handia, hobe daitezkeen emaitza akademikoak eta euskara mailaren lorpen eza.

EHIGEk lege-aurreproiektu hau aztertu du, egungo egoeratik eta hezkuntza publikoak dituen erronketatik abiatuta, arlo hauek kontuan hartuz: hezkuntza-eredu publikoaren zentralitatea, hezkuntza-plangintza eta eskola publikoaren perimetroa handitzea, inbertsio-plana eta

ikastetxe publikoen azpiegituren hobekuntza, hizkuntza-eredua, ikastetxe publikoen autonomia eta gobernantza-eredua eta zerbitzuak (eskola-jantokiak eta eskolaz kanpoko jarduerak, besteak beste.)

Nola erantzuten die Lege-aurreproiektuak erronka hauei? Ikus dezagun.

ESKOLA PUBLIKOA ARDATZ VERSUS EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA

Behin baino gehiagotan entzun dugu hezkuntza-lege berri bat beharrezkoa dela, gaur egungoak, Euskal Eskola Publikoaren Legeak, ez baitu hezkuntza-sistema osoa aintzat hartzen; hau da, ez ditu kontuan hartzen ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak. Horri dagokionez, datuek adierazten dute egungo legearekin azken 30 urteetan sare pribatu itunduak handitu egin duela bere eskaintza, eta nabarmen hobetu duela finantzaketa.

Hezkuntza publikoa gaur egun hezkuntza-sistema osoaren % 50 eskasa izatea hezkuntza-politika zehatzen ondorio zuzena da, azken 30 urteotan itunpeko hezkuntza pribatua babestu eta lagundu baitute, publikoaren kaltetan.

EHIGEek ez du onartzen hezkuntza-eredu hori, eta uste du legedi berriak neurri zehatzak hartu beharko lituzkeela hezkuntza publikoaren ezarpena indartzeko, bai eta

eskaintza publiko handiago baten plangintza eta ikastetxe publikoen perimetroa zabaltzea bermatzeko neurriak ere.

Hala ere, lege-aurreproiektuak bide beretik jarraitzea proposatzen du, eta are gehiago finkatzea egungo hezkuntza-eredua, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren bitartez. Zerbitzu horren bidez, hezkuntza publikoa eta hezkuntza pribatua parekatu eta maila berean jarri nahi ditu, bi sareei estatus bera emanez.

Bitartean, eskola publikoaren finantzaketa beharrak asetu gabe jarraitzen dute, bereziki azpiegiturei dagokienean. Ezinbestekoa da ikastetxe publikoetan eman den inbertsioen atzerakada errekueratzea. Inbertsioak behar ditugu ere metodologia pedagogikoetan eta berrikuntza-programetan.

Lege-aurreproiektuak Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa aipatzen du, baina ezer gutxi esaten du sarbide-betekizunei edo ikastetxeek zerbitzu hori emateko bete behar dituzten baldintzei buruz. Ituntzea lortzeko irizpideak ere ez dira zehaztu, ezta ere zer finantzatuko den itunpeko ikastetxeak “oso-osorik” finantziatuko direla esaten denean.

Gai hau bereziki garrantzitsua da EHIGErantzat, publikoki adierazi delako lortutako hezkuntza-akordioak amaiera emango liokeela ituntze unibertsalari.

Baieztapen hori ez da islatzen lege-aurreproiektuan, eta horrek iradokitzen du ituntze-mailak berdina izaten jarraituko duela (ituntze unibertsala) eta ituntzen den guztia *de facto* Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren parte izango dela.

Urte hauetan guztietan hezkuntzarako eskubidea ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez gauzatu bada, legeria gehigarriren beharrik gabe, zein da lege honetan Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa sartzeko helburua? Zer ari da arautzen? Finantzaketa publikoaren truke zerbitzu bat ematea edo Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa izeneko erakunde bateko kide izatea?

Formula hori urrats positibo gisa defendatzen dutenek funtzio berezi bat ematen diote etorkizuneko hezkuntza-sistema eraldatzeko, eta horrek bi gauza baino ezin ditu esan: lehenengoa, zerbitzu-emaileen kontzeptutik haratago joan nahi dela finantzaketa publikoaren truke, eta bigarrena, berriz, estatus gehigarri bat eman nahi zaiela zerbitzu horren partaide gisa.

Hau da, zerbitzu-emaile huts izateari utzi eta eskubide osoko partetzat hartuko direla. Laburbilduz, **ikastetxe publikoen eta pribatuen parekatzea.**

EHIGEek erabat arbuiatzen du asmo hori eta **proposatzen du eztabaida serio eta lasai bat irekitzea, publikazio-prozesu bat bultzatze aldera.**

Orain arte esandakoarekin argi geratzen da lege-proiektu honen protagonista ez dela eskola publikoa. Ikasturte honetan argitaratu diren dekretu eta aginduak ere bide beretik doaz: eskola publikoa eta pribatu itunduen ekiparazioa.

IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIA ETA GOBERNANTZA EREDUA

Euskal Eskola Publikoaren Legeak V. idazpuru osoa (15 orri) dedikatzen dizkio ikastetxe publikoen autonomiari. Lege-aurreproiektu honek, aldiz, 7 orri baino ez (VI. Titulua) dedikatzen dizkio ikastetxe publikoen, itundu-pribatuen eta pribatuen autonomiari.

Kontuan izanda egun indarrean dagoen araudia ez dela bere osotasunean garatu eta gaur egun motz geratzen zaigula ikastetxe publikoei, egin kontu.

Euskal Eskola Publikoaren Legean OOGari dagozkio ikastetxeko erabaki garrantzitsu guztiak. Lege-aurreproiektu honek kendu egin dizkio erabaki-ahalmenak, zuzendaria aukeratzea, esaterako.

Egun indarrean dagoen legeak parte-hartze mekanismoak bultzatzen ditu, IGE eta federazioen finantzaketa bermatuaz. Honekin batera, gurasoen federazio eta konfederazioak kontsultatzea ahalbidetzen du. Guzti hauek desagertu egin dira lege-aurreproiektuan. Honek

ezjakintasun kezkarria adierazten du gurasoek eta guraso elkarreek duten oinarrizko funtzioaz eskolen egunerokotasunean, eta are eta gehiago, abandonua. Nola egingo dira ikastetxe parte-hartzaileak? Eta, nola bermatuko dira besteak beste eskolaz kanpoko jarduerak, hain garrantzitsuak direnak hain beharrezkoa den euskararen erabilera sustatzeko? Nola bermatuko da ere behar bereziak dituzten ikasleen aukera berdintasuna eskolaz-kanpoko jardueretan?

Amaitzeko, ikastetxeen autonomia figura berri batekin lotzen du lege-aurre-proiektuak: kontratu-programa, ikastetxeen arteko lehia sustatzea helburu duen finantzazio-bide berria.

EHIGEk eskatzen du euskal eskola publikoaren autonomiarako lege-esparru bat garatzea, eredu neoliberaletik urrundua eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoan oinarritua.

HEZKUNTZA-ZERBITZUAK

Goian aipatu bezala, IGEen finantzaketa desagertu egin da lege-aurreproiektutik, eta horrek kolokan jartzen ditu parte-hartze demokratikoan oinarritutako hezkuntza eta eskolaz kanpoko jarduerak, besteak beste.

Desagertu egin da ere eskola-jantokien aipua. Ezaguna da egungo kudeaketa-ereduak ez dituela asetzen hezkuntza-komunitateak, eta ikastetxe publikoek eskola-jantoki osasungarriagoak, hurbilagoak eta hezitzaileagoak eskatzen dituztela. Zergatik kendu de lege-aurreproiektutik hezkuntza publikoarentzat hain garrantzitsua den gai bat?

EHIGEk eskatzen du eskola-jantokien izaera hezitzailea bermatzea, sukaldeak eraikitzeko plan bat abiatzea eta kalitatezko elikagaiak bermatuko dituen eredia ahalbidetzea, bertako eta sasoiko elikagaiekin.

EUSKARA

Hauxe dio duela 41 urteko Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legeak:

"Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu".

Jaurlaritzak du "ikasleek bi hizkuntza ofizialak benetan menperatzera bideratutako neurriak hartzea ere eta ikasketaplanen egokitzapena".

Hezkuntzaren Lege-proiektuak maila jakin bat jarri dio "benetan erabiltzeko" gaitasun horri: B2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean.

Lege honek "derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, Euskadiko bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ezagutzea ahalbidetzearen alde egiten du" (65.2. art.)

Eta zer egingo du hori lortzeko? "Ikastetxeek hizkuntza-proiektu propio bat egin behar dute, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, helburua hartuta euskara ardatz nagusi izango duen sistema eleaniztuna, zeinean bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzat hartuko baitira" (67. art.). Hau da, ez da zehazten hizkuntzen marko orokor bat, ikastetxe bakoitzak erabaki ahal izango du zein hizkuntzatan emango dituen irakastorduak.

Honek ikastetxeen gain uzten du ikasleek B2 maila hori lortzeko helburua eta aukera ematen du ordu gutxiago emateko euskaraz. Zein baliabide izango ditu ikastetxeak helburu horiek lortzeko? Gaur egun derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek B1 maila jasotzen badute, nola daiteke euskara ordu gutxiago emanda B2a lortzea? Ebaluazio diagnostikoek erakusten dute ikasleen portzentaia handi batek euskararen ezagutza baxua duela, eta horrek eragina du gainontzeko irakasgaietan. Nola helduko zaio arazo horri?

Bukatzeko, legeak ez du aurreikusten B2 hori lortzen dela bermatuko duen kontrol-bide zehatzik. Hauxe dio (66.art.): "Ikasleen ardura beren gain duten irakasle-taldeek

ebaluatuko dute gutxieneko helburu horiek betetzen diren” eta “Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren ebaluazio-tresnak arautuko ditu, irakasle-taldeek berek baloratu ditzaten lortu diren emaitzak...”.

EHIGERen ustez Sailak euskara eta euskal kultura ardatz dituen marko orokor bat zehaztu behar du, ikastetxeei gidaritza eta baliabideak esleitu behar dizkie eta helburuak lortzen direla bermatzen duten kanpoko ebaluaketa eta helburuak lortzen ez direnerako neurri zuzentzaileak ahalbidetu behar ditu, 65.2. artikulua dioena betetzen dela bermatzeko.

ESKOLA PUBLIKOEN SARE OREKATUA BERMATZEA

Hasieran aipatu bezala, eskola-segregazioaren indize handia da gure hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat. Hainbat urtez ikastetxe publikoetako familiek eta irakasleek jasan ditugu utzikeria horren ondorioak.

Onartu beharra dugu gai hau ezkutatu nahi izatetik, arazoa onartu eta konpontzeko neurriak abiatu direla ikasturte honetan. Hala ere, emandako pausuak motz geratzen zaizkigu eta gardentasun falta egon da prozesuan, salatu dugun bezala.

Hezkuntza saila aholkatu duen lan-taldeak argi adierazten du itunpeko sarearen gehiegizko presentzia eta gain-eskaintza pribatua direla eskola-segregazioaren iturrietako batzuk. Zergatik ez da hartu hauei aurre egiteko neurririk?

EHIGERen ustez ezinezkoa izango da eskola publikoaren sare orekatu bat lortzea eskola publikoaren perimetroa zabaldu eta itunpeko sarearen gain-eskaintza murrizten ez diren bitartean.

Hau guztia esanik testu honi ezezko borobila ematen diogu eta igandean Mungian esan bezala, prest agertzen gara eskola publikoaren erronkei eta beharrei erantzuteko prestutasuna agertzen duzuenokin elkarlanean aritzeko.